

Zerga kudeaketaren profesional hori:

2016ko apirilaren 1ean, indarrean jarriko da urtarriaren 4ko 1/2016 Foru Agindua, Gipuzkoako lurraldetako Zergen Foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duena.

1/2016 Foru Aginduak jakinarazpen elektronikoa ezartzen du derrigorrez erabiltzeko bitarteko elektroniko moduan. Gainera, Gipuzkoako Zerga Administrazioarekin telematikoki harremanak izatera behartutako taldea berriro definitzen du, eta aurkezpen telematikoa aitorpen eta idatzi mota guztietara hedatzen du.

Gertaera hori bereziki garrantzitsua da zerga kudeaketaren profesional moduan aritzen diren personei dagokienez bi alderditan:

**Bezeroa nor den kontuan hartu gabe elektronikoki egin beharreko beste tramtie batzuk.**

Zerga kudeaketaren profesionalak behartuta daude honako hauek elektronikoki egitera: zerga aitorpenen bidalketa, ziurtagirien eta ordainketa gerorapenen eskaera nahiz beste edozein trámite eta komunikazio, bai eta beren bezeroak bitarteko elektroniko horiek erabiltzena behartuta ez badaude ere.

Berariazko aplikazio edo formulariorik ez dagoenean, registro elektronikoko formulario generikoa erabili beharko dute.

#### **Jakinarazpen electronikoa**

Ondoren adierazitako ordezkaritzaren edukiak profesionalei ahalmena ematen diete haien bezeroen jakinarazpen elektronikoak eskuratzeko.

**“3. edukia: ordezkatuari zuzendutako jakinarazpen elektronikoak jasotzea”. Ikuskapen prozedurak kanpoan gelditzen dira.**

**“4. edukia: ...ikuskapen prozedura eta jarduketetatik datozen jakinarazpenak”**

Eduki horietako bat inskrتاباتاکو ordezkaritzan batean markatzeak ondorioak ditu jakinarazpen elektronikoari dagokionez, ordezkatua bi egoera hauetako batean dagoenean:

Estimado/a profesional de la gestión tributaria.

El 1 abril de 2016 entrará en vigor la Orden Foral 1/2016, de 4 de enero, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

La OF 1/2016, además de redefinir el colectivo obligado a relacionarse de forma telemática con la administración tributaria guipuzcoana y ampliar la presentación telemática a todo tipo de declaraciones y escritos, incluye la notificación electrónica como medio electrónico de uso obligatorio.

Este hecho tiene especial relevancia en el ámbito de las personas que ejercen como profesionales de la gestión tributaria en dos aspectos

**Trámites que deben realizarse de forma electrónica independientemente de quien sea el/la cliente**

Las personas profesionales de la gestión tributaria están obligadas a remitir las declaraciones tributarias, a solicitar los certificados y los aplazamientos de pago y cualesquier otros trámites y comunicaciones por medios electrónicos, incluso cuando sus clientes no se encuentren obligados a utilizar dichos medios electrónicos.

Cuando no existan aplicaciones o formularios específicos deberán utilizar el formulario genérico del registro electrónico.

#### **Notificación electrónica.**

Solo los contenidos de la representación que se indican, facultan a las profesionales a acceder a las notificaciones electrónicas de sus clientes.

**“Contenido 3: recibir notificaciones electrónicas dirigidas a la persona representada”. Se exceptúan los procedimientos de inspección.**

**“Contenido 4: ...notificaciones derivadas de procedimientos y actuaciones inspectoras”**

La marca de alguno de estos contenidos en una representación inscrita tiene efectos en lo que respecta a la notificación electrónica cuando la persona representada se encuentra en una de estas dos situaciones:

1. Departamentu honekin telematikoki harremanak izatera behartutako kolektibo batekoia izatea.
2. Borondatez hautatzea jakinarazpenak telematikoki jasotzeko aukera.

Kasu horietan, interesdunari eta ordezkariari bidaliko zaien bezeroak jakinarazpen elektroniko bat jaso izanari buruzko posta elektroniko bidezko abisua.

#### **Abisua bidaltzeko erabiliko den posta elektronikoko helbidea:**

1. Bezzeroaren email-a. Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren datu baseetan jasotako helbidea.

Helbide hori modu azkar batean kontsultatu edota aldatu daiteke, 036/030 eredu aurkeztu gabe, Ogasunaren web orriko utilitate bat erabiliz:

[gipuzkoa.eus/ogasuna/harremanetarakodatuak](http://gipuzkoa.eus/ogasuna/harremanetarakodatuak)

Bai ordezkariak eta bai bezeroak posta elektronikoko helbidea sartu dezakete, bi kasuetan aurretik identifikatuta.

Garrantzitsua: posta elektronikoko helbidea bezeroarena izan behar da, eta inola ere profesionalarena. Azken horrek bere posta elektronikoan jasoko du abisua.

#### 2. Profesionalaren email-a

Zerga kudeaketaren profesionalek posta elektronikoko bi helbide izan dezakete:

- Bata, Gipuzkoako zergadun moduan, hala badagokio. Konsulta eta aldaketa egiteko, zergadun orokorrentzat aipatutako aukera eskura dago.

- Eta, bestea, zerga kudeaketaren profesional gisa. Bezeroei buruzko jakinarazpen elektronikoko abisuak posta elektronikoko bigarren helbide horretara bidaliko dira.

Posta helbide hori "profesionalen arlotik" kontsultatu edo aldatu ahal izango da, pantailaren eskuinaldean. Datu horri bakarrik titularrak aldatu dezake. Ezin izango dute profesionalearen langileek aldatu.

Kasu guzietan, bidalitako posta elektronikoko mezua edo mezuak jakinarazpen bat igorri izanaren abisu soila bestetik ez dira. Mezu hori ez jasotzeak ez dio eragiten egintzaren jakinarazpen efektiboari.

1. Pertenece a un colectivo obligado a relacionarse con este departamento de forma telemática.
2. Ha optado de forma voluntaria por recibir notificaciones de forma telemática.

En estos casos, el aviso vía correo electrónico de que su cliente ha recibido una notificación electrónica se enviará a la persona interesada y a la representante.

#### **Dirección de correo electrónico a la que se envía el aviso:**

1. email del Cliente. El que figura en las bases de datos de la Dirección General de Hacienda.

Esa dirección se puede consultar y/o modificar de forma ágil, sin necesidad de presentar el modelo 036/030, a través de una nueva utilidad en la página web en el siguiente enlace:

[gipuzkoa.eus/ogasuna/datoscontactofiscales](http://gipuzkoa.eus/ogasuna/datoscontactofiscales)

Pueden introducir la dirección de correo electrónico tanto la persona representante como el/la cliente, en ambos casos, previa identificación.

Importante: la dirección de correo electrónico debe pertenecer al/a la cliente y bajo ningún concepto al/a la profesional, que recibirá el aviso en su propio correo electrónico.

#### 2. email del Profesional

Las personas profesionales de la gestión tributaria pueden disponer de dos direcciones de correo electrónico:

- Una como contribuyentes guipuzcoanas, si es el caso. Para su consulta y modificación disponen de la opción mencionada para contribuyentes en general.
- Y otra como profesionales de la gestión tributaria. Los avisos de notificación electrónica relativos a clientes se remitirán a esta segunda dirección de correo electrónico.

Se podrá consultar y/o modificar ese correo desde el "área de profesionales" en la parte derecha de la pantalla. La modificación de este dato está reservada a la persona titular. No podrá modificarse por las personas empleadas de la profesional.

En todos los casos, el correo o correos electrónicos enviados son un mero aviso de que existe una notificación. No recibir dicho correo no influye en la efectiva notificación del acto.

### **Jakinarazitako egintzarako sarbidea.**

Bai 3 edota 4 edukiak markatuta dituen profesionala eta bai jakinarazpenaren hartzalea sartu ahal izango dira jakinarazpenaren edukian. Jakinarazpena lehen sarbidea egiten den egunean gauzatutzat hartuko da, edo, sarbiderik izan ez bada, jakinarazpen elektronikoen postontzian eskura jarri eta hamar egunetara.

Jakinarazpena zergapekoaren eta bere ordezkariaren eskura geldituko da postontzian, nahiz eta 10 eguneko epean bertan ez sartu.

### **Acceso al acto notificado.**

Tanto la persona profesional con los contenidos 3 y/o 4 marcados, como la propia persona destinataria de la notificación podrán acceder al contenido de la misma. La notificación se considerará realizada en la fecha en que se produzca el primer acceso o, de no producirse ninguno, a los diez días de su puesta a disposición en el buzón de notificaciones electrónicas.

La notificación quedará en el buzón a disposición de la persona obligada tributaria y de su representante a pesar de no haber accedido a la misma en el plazo de 10 días.

### **Informazio gehiago.**

Argibiderik behar izanez gero, Ogasun eta Finanzas Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan edo 902 100 040 telefonoan kasu egingo dizugu.

Adeitasunez.

### **Más información.**

Ante cualquier duda, le atenderemos en las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas y en el teléfono 902 100 040.

Atentamente.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 25a  
En San Sebastian, a 25 de enero de 2016

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA  
EL DIRECTOR GENERAL DE HACIENDA



Jokin Perona Lerchundi